

LEZOKO ZUHAITZ ETA LANDARE BEREZIAK

Atal honetan Lezoko flora berezia ezagutarazi nahi genuke; bai galtzear dauden espezieak bai babesturikoak edo oso arraroak direnak. Ea, ezagutuz gehiago babesten dugun ingurua!



*S.G.1.
proiektuak
arriskuan
jartzen du
udareondoa.*

UDAREONDOA: *Pyrus communis* L.

Altueran 20 metro artekoa, batzuetan arantzaduna. Hostoak aobatuak edo arraultz formakoak, ertzak zerratuak edo ia osoak. Loreak, hostoak baino lehenago irtetzen dira, adasken puntan korinbo edo lore multzoetan elkartuak. Martxotik maiatzera bitartean zuhaitza zuriz jazten da.